Umeen alfabetatzea

GIPUZKOA ATZERA GERATUKO AHAL DA?

Euskera-lanetan gabiltzanok atsekabe ugari artzen degu, baiña bai poz ere. Holetako bat lehengo batean artu nuan: Iñaki Goikoetxea losulagunak **Kili-kili, lan ta lan** egiten duan gizona aurkeztu zidenean.

Il honetako ZA batean aita Goikoetxea berak idatziteko zerrenda bat egartu zan, baiñan halare zerbaitxo bat esan nahi nuke: batere zaratik gabe egiten ari diran lan hauxe euskeraren etorkizunerako lan sakon eta aberatsa dala.

Hara lan honen mamia:

Gure umeak shal dugunean ikastoletara bialtzen ditugu; baiña ikastola hoietako asko zazpi edo amar urteaiñoko umeak bakarrik artzen dituzte; beste ume asko ta asko, ordaintzekorik ez dutelako edo ikastolak eroso ez dituztelako, euskal ikas-biderik gabe geratzen dira. Hona hemen euskera lantzeko bearko degula ikusten nago. Ikusalor ederra; euskeraz jakin arren euskeraz idazten eta irakurtzen ez dakiten analfabetoak. Arazo honeri zaiñetatik ekitea da etorkizunez aberatsagoa ta errezagoa. Baiña nola ekin?

Hemen dator **Kili-kili** lanera.

Kili-kili margoz oso egoki irarria dagoan kuaderno bat da. Zazpi urtetatik amalau urteaiñokoentzat egiña. Euskal-gramatika, literatura, jeografia, aritmetika, erlijioa, kondaira ta abar idatzita dauzka. Pittinka, umeci (eta irakaslerik gabe!) oman behar zaion bezela. Umeak texto txiki-txiki hoiek horretarako dauzkan tokí berezietan **egunero zazpi lerro** berak **kopiatu** behar ditu. Hala, konturatu gabe irakurtzen eta idazten ikasten ari da. Bi illabetetatik bein kuaderno betea biali ta berria artzen du umeak.

Baiña nork jarriko du umea berez lanean?

Bai, umea ez da utsean lanean jarriko. Ba daki, ordea, lan hau zintzoki egin eta kuadernoa Bilbora bialtzen duanean, bere puntuekin seritua izango dala; uts gutxi, puntu asko; uts asko, puntu gutxi; baiñan koplatze-lan hau errex-errexa baita, **arretaz** egiten bada; ta arretaz egiten dan lanak **asko erakusten bait du.** Horreterako, Bilbon irakasle-ekipo batek egiten ditu korrekzio-lan hoick; ta ba daki umeak, puntu gehien irabazten dituzten 150 ume (ez dira bi ume!) iru egunetako exkursio batekin sarituak izango dirala; igaz, Araba ezagutzera joan ziran autobusean iru egunetarako, ostatu ta guzi; aurten: Naparroa ezagutzera joango dira beste iru egunetarako

Bizkain asi zan lan hau, ta igaz bi milla (2.000) ume orrela euskeraz irakurtzen eta idazten ikasiak dira; ta aurten ere jarraitzen dute, ta datorren urtean ere jarraituko dute askok, 14 urte bete arte. Baiñan aurten, Bizkaiko 2.000 umeak 4.000-raiño geitu dira!, ta Naparroan iru milla (3.000!) apuntatuak

dira aurten lanean asteko. Ba ahal da lan oderragorik? Hara 7.000 ume etxean bertan, iñora atera gabe, alfabetatzeko bidea arkitu.

Gipuzkoa daukagu oraindik gelditik.

Bizkaiko gastuak bertako industrialak-edo ordaintzen ari dira. Naparrakoa, berriz, hainbeste lan egiten ari dan «Principe de Viana» erakundeak artu du diru-kezka hau bere kontu. Ta Gipuzkoan zer? Ez ahal dago hemen lan hau zuzentzeko bidea arkituko duan iñor? Batetik dirua emango duana arkitu behar da, noski, baiñan hori lortzeko Gipuzkoan komisio bat izentatu behar da, ta komisio horretarako gizon edo emakumeak falta dira. Berez, Tolosa ta Zarautz, Amezketa ta beste erri batzuetatik **Kili-kili** eskatzen asiak dira, baiña Gipuzko osoan zabaldu behar dan lana da hau. Argitxo hau irakurrita, ez ahal da iñor kezkatuko?

Norbaitek lan hau asi nahi badu, idatzi dezala ZA-ra.

Kuadernoak gizpuzkeraz egiñak daude; zabalkunde lan hau asteko zai dago egillea.

UGALDE-TAR MARTIN

GIZONETIK GIZONERA

BASARRI ADISKIDEARI

Estimatzen dizut egiten didazun tonuagatik, baina ez ordea intentzioagatik.

Sasi-letradurik ez dut gorrotatzea, zeren bestela nebe burua gorrotatzea litzake, nerea eta bai nere adiskide diran euskal idazlerik gehienena, zu ere tartean zaitudalarik.

Zuk diozunetik nerera alde handiak daude. Sasi-letraduak letradua behar duela gidari. Hau argi esaten nuen. Eta letraduak inoiz edo behin oker bat egin arren, guk, tarte hortan, mila egiteko arriskua dugula. Beraz, gauzak hola adierazi nituelarik, oso egokia zaizu «De sabios es rectificar».

Hizkuntzaren herio bidea ez da diozunagatik. Denon buruetan dago zergatik dan, eta ez noa xehetasun hoietan sartzera.

Nere esanak hor daude, esandako leku berean, batasunaren adierazgarri. Eta ez zuk eman nahi diozun balio berarekin.

Ez dut esan inor behartu nahi dudanik, baizik bide batera hurbiltzen lagundu, horondate oneko idazleeri, Arantzazun markatu zan bidera. Beraz, kontu hontan beste bide batzuetatik zirkin egin didazu. Diozuna, beste gauza bat da, eta hortaz ez dut ezer esan. Arren, ez nahastu. Eta hain zuzen ez dira exenplurik hoberenak inoiz batasunera ahalegindu ez diranen hitzak, edo aldez aurretik uxatzen hasi zirenak.

Batasun biderako, nik eta beste askok, amore eman diogu gure aldeari. Eta, zuk?

Bakoitzak beretik emanez elkarrengana hurbildu behar garanez, ezinezkoa litzake batzuek dena eskaini beharra eta beste batzuek ezertxo ere ez.

Larresoro? Ba, dirudianez bere esanetatik eta bideetatik zu baino hurbilago nagoala esango nuke. Ez ahal da hola? Aski da elkarren idazkerak ikustea.

Herria, diozu? Zein herri? Ni neu ere herria naiz.

Demagojiarako ondo prestatzen diran atxikiak dira herria ahotan hartzeak. «La Voz de España» bakarrik irakurtzen dutenak arrazoiak barra-barra esan dituzulakoan egongo dira. Izan ere, jokoa egiteko zer bide hoberik?

Sasi-medikuaren anekdota hori, oso polita eta oso zaharra da. Gehiago ere jarraitu zenezakeen, baina erdi bidean eten duzu. Zeren Arnoateko sasi-mediku horren ardurarik handiena izan zen bere seme eta iloberi mediku karrerak ematea, eta semea aita baino hobea izan zen hezur-autsiak sendatzen ere. Zergatik isildu? Eta, bestalde, ezaguna da Petrikillok Zumalakarregi hil zuela bere enplastuz enkangrenaturik. R. Oyarzun-ek berak ere Historia del Carlismo-ren laugarren kapituluan alpatzen du. Eta hau ere konta behar zenuen.

Baina exenplotzat berdin zan etxegintzakoa hartu bagenuen ere. Arkitektoak egin beharko lituzke zimentarriak eta estruktura edo gorputz guztiaren kalkuloak, eta ez arotzak edo igeltseroak. Eta pentsa zazu, zu ta ni, sasi-letraduak, arotza edo igeltseroa bezala gerala hizkuntzaren estrukturari buruz. Beraz, nik istradu eta sasi-letradu kontuan esanak ulertzeko aski da zentzua adi jartzea. Hau da, hitz batean, itsasontzia nork eraman behar du, pilotuak ala sukaldariak? Hala ere, itsas-ontzi batek biak ditu beharrezkoak. Gezurra dirudi beheren mailako eskolaz aritu beharra.

Gaiztasunari buruz zer esan dezakezute eskatu diran batasun normetara inoiz makurtu ez zeratenok? Zer esan dezakezute inoiz euskalki hertsi batetik irten gabe idatzi duzutenok? Eskubidea duzute batasuneruntza ez jarraitzeko, baina ez gure kontra jardutzeko.

Zergatik hartzen dituzu ahotan lehenagoko idazleak? Besteok ere ez ote ditugu ezagutzen eta maitatzen zuk bezin ondo? Gainera, hortaz zer duzute esatekorik Azkueren Gipuzkera osotua bera ere betetzen ez duzutenok? Eta, lehenago zer dago besterik, batasunaz, Campion eta Broussain-ek gertatutako txosten teorikoa besterik? Eta hauek ere ez dituzute betetzen. Beraz, alde hoiek ikusirik, zentzundunarentzat, nork sortzen du euskerarenganako nazka? Batasunik txikiena ontzat hartzen ez duzutenok, zergatik mintzatzen zerate batasunaz?

Nik ez ditut ikusten gauzak alde soil batetik, baizik erdiragotik, nere aldetik amore emate handiagoa dudanez gero.

Baina ni ez naiz hoiengatik haserretzen eta ez naiz eragozpenak jartzeko zalea ere; baina zer pentsa ezertan ahalegindu gabe, probarik egin gabe batasunerako hautatu dan bidea eragozpenezkoa dala uste duten idazleeri buruz? Zer pentsa, batasun bileretan beren iritziak eman ez dituzteneri buruz? (Orduan zen garala). Zer pentsa beren iritzi ahulak arrazoi handiagoek menperaturik ikusirik beren buruak makurtu, ezkutatu, eta gero atzetik azpijanean batasunaren kontra lana egin duteneri buruz? Beren gutxietsitasunaren, konplejoaren, menpeko gaixotasuna besteeri kutsatu nahi?

Gutxienik, geron euskalkikeriari amore eman diogunok (eta hau herriari begira eta herriaren onerako; herriakin burua-bat, herria garalako: ez gipuzkoarra, ez bizkaitarra, ez nafarra..., baizik Euskal-Herria, bakoitzak beretik orokortasunera eskalniaz hornitu eta burututako herria; gure salbaziorako bide bakarra ez bada ere, bai biderik zuzenena) norberekeriak alde batera utziaz goaz. Nun gauden badakigu; nora behar dugun jakin behar dugu.

Adibideak aldatuaz hasi zeranez, esan beharrean nauzu, Euskal-Herria erdalduntzen danean, ez letradurik eta ez sasi-letradurik ez dela beharko. Gauza jakina da hori. Baina gure herriak duen gaitza zergatik ez duzu aitortzen letraduak sortu aurretikoa dala? Zergatik ez aitortu orain arteko osagarriak ez direla aski izan? Eta, txarrenean ere, beste bat aprobatzeak ez du egoera estuagoetara bultzatuko eta bai behar bada itzartzera zirikatu. Arestian Larresororen kontseilua aipatu didazula esan dut, eta irakur zazu Huntza eta Hartaz-en 75/76 orrialdeetan ideia hauetaz esaten duena.

Zure iritziak gora behera, berriz ere gidaritzatzik sasi-letradueri ezetza eman beharrean naugu neu ere tartean naizelarik. Eta letraduak markatzen diguten bideeri hurbilduaz gure lana eskaintzea eskatu. Beste esaera harek dion bezala: «Zapatero, a tus zapatos». Eta ez engañatu geure bururik zerbait handi gerelakoan.

Guzti honekin ez dut esan nahi zure lana txarra danik, ezta gutxiagorik ere. Baina, hau bai, hobea izan zitekean; batez ere batasunerako iritziak elkarrengana hurbiltzera lagunduaz giro hobe bat lortzeko.

Eta nere esanok ez txarrera hartu. Bihotzez, adiskidetasunik sendoenean mintzatzen natzaizu, eta gainera gogoz opa dugun helburu nagusiago batera begira argia eman nahirik.

Juan San Martin

Tomás Eizmendi'ren Jatetxea

Zumai erritik metro gutxira,
ibai ertzean par-irriz,
etxe polit bat zure zai dago
euskal kutsu zoragarriz.
Arrai, barazki, aragi eder;
nai dan aukera janariz,
jatetxe au bein probatzen
[duna
laister azaltzen da berriz.

—oOo—

Restaurante Tomás Eizmendi
Curva de «Chiqui-erdi»
Tel. 86 13 90 ZUMAYA

Baserriaren alde
EUSKAL ETA ERDAL

Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

Banen baneko aziyak
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan etorriak

HANDIK ETA HEMENDIK

EUSKERA BATUA

Hitzez, guztiak ei dagoz euskera batuaren alde, baina egitez ez. Aitzakia, H ei da, baina H-ren kontra dagozanak, zergaitik H baztartu ta euskera batuaren beste oinarri guztiak ez dabez onartzen?

Euskera batua gehiago zabaldu ez bada, guztiok dakigu nortzuren erruagaitik dan. Bakoitzak aztertu dagiala, bere barrura begiratuta, batasunaren alde zer egin dauan.

Dana dala, euskeraren batasuna martxan dago. Gure gazteri berrian talde haundi bat dago, Euskalerria maite ta bere alde lan egin eta aufritzen diarduana. Gazte hauengan sinisten dot ere heurek egingo dabe hainbeste behar dogun batasuna.

Euskera batuaren oinarri batzuek egin dira, erregalu moduan zabaltzeko. Nahi dauanak, eskatu, zenbat nahi daben esanaz, nire zuzenbidera: Xabier Gereño - Av. Ejercito, 18, 3.º - BILBAO-14.

DANTZARIEN ELKARTEA

Euskal Dantzarien Elkarteak sortzeko baimena lortu dau. Laster, berriro, DANTZARI aldizkaria argitaratuko ei dabe.

EUSKAL ABESTIAK IRRATIETAN

SER-eko irratiak, euskal musikaren programa berri batzuekin hasi dira. Jose Luis Bengoaren zuzendaritzapean.

Ordu ta egunak hauek dira: Gaztelzen, asteazkenetako 13'lo-etan; Donostian, larunbatetan 11,35-etan; Bilbon, larunbatetan 11,15-etan, eta Iruñan, larunbatetan 15,30-etan.

TXISTULARIEN ELKARTEA

Txistularien Elkartearen batzar nagusia Iruñan izango da, otsailaren 22-an.

Urte azken hauetan, elkarte hau ez doa gehiagora, ta gaitz horren sustraia urte bitik urte bira egiten dauan aldakuntzan dago. Hartu dauan indarrak eskatzen dau ofizina toki baten behin betirako jartzea. Batzar guztietan hau eskatu da. Oraingoan, onartuko da eskari hau?

Xabier Gereño